

Bizkaiko monje eta fraideak

La historia de las Ordenes religiosas de Bizkaia durante el Antiguo Régimen (siglos XIII-XVIII) es bien distinta de la que hemos visto en Navarra y Alava, tanto en su nacimiento como en su desarrollo, y supone un ciclo posterior a los de las Provincias mencionadas, aunque anterior al caso guipuzcoano.

Monjeen Monasteriorik gabe

Hasteko, esan dezadan Bizkaiak ez zuela gizonen Monasterio edo Komenturik ezagutu, harik eta frantziskotarrek 1357an Bermeoko bere Komentua ireki zuten arte. Honek, besteak beste, ondorio hau behintzat izan zuen: "Erregimen Zaharra" deituan Bizkaiak ez zuen izan tradizio beneditarreko Monasteriorik, monjerik ez zen egon Erdi Aro eta Aro Modernoan. Lehenengo Monasterio beneditarra gure egunetakoa da, garai bateko Ziortzako Kolegiatara La Oliva-ko monje zisteratarrak etorri direnekoa (1988).

Horrekin du esan nahi, ordea, munduan monje bizkaitarrik egon ez zenik. Gaur egun kartusiarrek bezala, ez zuten Monasterio-Etxerik izan Jaurerrian, baina bizkaitarrek erbesteko Monasterioetan sartu ahal izan ziren monje izateko (Oña-ko Monasterioan, adibidez), eta, bestalde, kanpoko Monasterioek aukerarik aurkitu zuten, Bizkaian ondasunak eta ermitaren bat edo beste zaintzeko.


Hori gorabehera, Ordena erlijiosoen historia Eskeko fraideekin hasi zen Bizkaiko Jaurerrian.

Eskeko fraideak

Emakumezkoek lehenagotik ere bere Komentu/Monasterioak izan baldin bazituzten ere (Urduñan, adibidez), fraideena abiaraztea zailagoa izan zen Bizkaian, eta XIV. mendea arte Bizkaiko lurretan ez zen eraiki fraide-komenturik. Egin kontu, mende bete lehenagotik ditugula fraide-komentuak Nafarroan, Araban, eta Iparraldean ere. Hegoaldeko Kostaldeak beranduago ezagutu zuen hori.

Testuinguru horretan Ziortzako Kolegiataren historia aipatu behar da. Ziortza ez zen izan monje beneditarrena, ezta Eskekoena ere; baina garrantzizkoa gertatu zen, Bizkaian Gotzaindegirik ez zegoenez Kolegiata hau bilakatu baitzen mendetan elizgizonen erdigune nagusia. Hala ere, Ziortzan ez zegoen Eskeko fraiderik, baizik eta apaiz kalonje agustindarrak ziren bertakoak (1380...). Hori horrela, gainerakoan Bizkaiko erlijioso-sarea eratzea Eskekoen egitekoa izan zen.

Erdi Aro eta Modernoan ez ziren izan Ordena erlijioso asko Bizkaian Komentuak eraiki zituztenak. Frantziskotarrek zortzi Etxe sortu zituzten. Horietako bik, bizialdi laburra izan



zuten: Ondarroakoak lehenengo (1484...: ez dakigu zenbat denboran egon zen irekita, Kanarietarako misiolariak prestatzen), eta Lekeitikoak gero (1617-1650). Izaro-ren historia bestelakoa da (1422-1719), itxi egin behar izan baitzen, bizitzeko zituen zailtasunengatik, baina bertako fraideartea Foruan irekitako Komentura pasatu zen (1719-1839). Ondoko beste Komentu frantziskotarrak XV. mendean jaso ziren: Abandoko biak (Santimamine, 1446; San Frantzisko, 1475) eta Urduñakoa (1471).

Erdi Aroan Bizkaian lekurik aurkituzuten beste bi Ordenatetik bata mesedetakoa izan zen, eta agustindarrena bestea. Barakaldoko Burteñan jarri ziren haiek (1384), eta agustindarrek, berriz, Deustuko Berrizen (1407). Karmeldarrek, oster, ez zuten Komenturik izan Erdi Aroko Bizkai hartan, eta egindako ahaleginak gorabehera, hirukoiztarrek (trinitarioek) ezin izan zuten eraiki Balmasedan Komenturik (1458).

Aro Modernoan sarea osatuta

Esandako hori batez ere hurrengo bi mende pasatxotan osatu ahal izan zen. 1529an fraide domingorrek jarri ziren Bilbon, geroxeago agustindarrek izan zuten beren bigarren etxea, oraingoan Durangon (1585). Bi Komentu berri, beraz, mende osoan. XVII. mendean, karmeldarrek ahalegin guztiak egin zituzten Bilbon Komenturik izateko, baina ospizio edo komenturordeko bat baizik ez zuten izan (1617); alderantziz, emankorrenak berak izan ziren Jaure-

rriko beste hirietan, lau Etxe jarri baitzituzten hurrengo hamarkadetan, Markinan (1691), Larrean (1716), Sestaoko Desertuan (1719) eta Balmasedan (1727).

Aro Modernoan bi Ordena berri ditugu aintzakotzat hartzekoak. Kaputxinoek (bestelakorik nahi izan arren) ez zuten izan modurik Bilbon Komenturik eraikitzeko (1657). Aitzitik, Baionan edo Gasteizen gertatuko zitzaienaren alderantziz, Jesulagunek bere lkastetxeak ireki ahal izan zituzten Bilbon (San Andres, 1604), Urduñan (San Joan Bataiatzailea), eta apalago bat Lekeitioan (1693). Jesulagunen hauek denak, jakina denez, Gobernuaren aginduz itxi behar izan ziren 1767an.

Erljoso-Etxe haiek ez ziren, noski, denak molde berekoak: bazeuden bakardade-etxeak zirenak, biziera hertsia goa zutenak, eta bestelakoak, hirietako bizitzara erabat irekita bizi zirenak. Haietako batzuk kultur gune aberatsak izan ziren, eta beraietan bizi izan ziren Bizkaiko kulturaren historian leku aipagarria izan zutenak: gogora, adibidez, Migel Alonsotegi mesedetakoa (*Coronicas de Vizcaya*, 1577), Martin Coscojales agustindarra (*Antigüedades de Vizcaya*, 1590...), edo Gabriel de Henao jesulagun valladolidarra (*Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, 1689-1691), denak ere Bizkaiko historialariak.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharak: 610-273580